

# Euskaraz

EL CORREO  
15 junio 2024



---

Todo listo para que estalle la fiesta en Olarizu

La recaudación de la 44 edición del Araba Euskaraz será para la Ikastola San Bizente

---

P. 2-4

«Familia osoarentzat egitarau erakargarria prestatu dugu»

Arturo López de la Callek biharko festaz gozatzera gonbidatzen gaitu

---

Araba Euskaraz, auzolanaren emaitza

Arabako zortzi ikastolek aurten ere elkarlanean aritu dira jaia antolatzen

# Araba Euskaraz, a punto de estallar



Las ocho ikastolas de Álava se unen este año en favor de San Bizente Ikastola.

## Leire Larrazabal

**T**odas las ikastolas juntas, todas unidas. Las ocho ikastolas alavesas volverán a llenar mañana de euskaltzales Olarizu por tercer año consecutivo, y es que ya está aquí el Araba Euskaraz, la fiesta de las ikastolas alavesas en su 44 edición. En esta ocasión, el objetivo es dar impulso a la Ikastola San Bizente de Oion. Así, además de dar a conocer el proyecto educativo de la ikastola, aprovecharán la fiesta para reivindicar e impulsar y ampliar los espacios de uso del euskera, tanto en Oion como en la Rioja Alavesa.

La Ikastola San Bizente lleva casi medio siglo arraigada en Oion, des-

de 1976. Se trata de una comunidad educativa formada por 201 familias, 288 alumnos, 34 profesores y trabajadores. La Ikastola San Bizente mantiene una estrecha relación con las otras siete ikastolas alavesas, pero de forma específica con las otras dos ikastolas de Rioja Alavesa, Bastida y Assa. Entre las tres han conseguido que los euskaldunes y casi euskaldunes hayan pasado de ser un 4% a ser un 40% en cinco décadas.

Tras el trabajo de todo el curso, llega el momento de disfrutar del Araba Euskaraz, que contará mañana con diferentes espectáculos, talleres y juegos dirigidos a todas las edades, pero especialmente a niños y niñas, adolescentes y jóve-

nes. No obstante, hay que destacar el ambiente familiar, ya que han diseñado un programa para disfrutar en familia. Pero también han preparado un menú para disfrutar entre amigos.

Araba Euskaraz dará el pistoletazo de salida a las 10.00. A partir de entonces, quien se acerque a la fiesta tendrá un sinfín de oportunidades para disfrutar del euskera y de la cultura vasca. Todo el que se acerque contará con tres zonas para pasarlo en grande:

### Lautada

Habrà artes escénicas de la mano de la Ikastola Armentia. También se situará en esta zona el karaoke

## Leloa eta logotipoa

'Mugaezin' da aurtengo Araba Euskaraz leloa. Mugarik gabe eta mugaezin irudikatzen dutelako gure hizkuntza. Mugarik gabe, ez bada ortzi-muga, mugarriz mugarri, euskararentzako espazio zabalagoak irekiz. Mugarik gabe, euskaraz hezi eta hazi nahi duten guzientzat. Hegomen-debaldeko bazterretik ari gara, bazter-herriük, euskarazko hatsa igorritz erdigunera. Baina erdigunean ere bagaude, eta indar zentripetua eragiten dugu, nafarrak eta errioxarrak, baita etorri berriak ere erakarritz gurerara, azaldu dute. Gainera, duela 50 urte, guraso, irakasle eta ikasle aitzindariak abiatutako ikastola mugimendua guztiz errotuta dago Arabar Errioxan.


Logotipoa infinituaren ideian inspiratuta dago eta Arabako lurraldeko zortzi ikastolen arteko lankidetzaz sinbolizatzen du.

**ENTRADA**  
11.00-14.00  
LH  
Henda guzietan  
DHI  
Gure guztien

**araba Álava**  
Euskarazko erakundeak

**eitb**  
**BERGARA**  
**berria**

11:00 ARTE ESZENIKOAK  
Armentia Ikastola  
12:30 GOIAZEN KARAOKEA  
14:00 MUGAEZIN TXOIA  
Araba Ikastola eta Ikastola  
15:00 DANITZA PLAZA  
ZUIBA  
17:30  
11:00-14:00 BERRIAREN TXOKOA  
11:00-14:00 ARGITXOREN TXOKOA  
Euskarazko EROSKI ELKADUNA TALERRA  
HAKUSI GUTIA



**2**  
**mendia**  
**gaitza**

11:00 DANITZA MUGAEZIN  
Euskarazko erakundeak  
12:30 BERTSOTAN! Araba Berriaren Erakundeak  
14:00 BERTZ (Gazte Talen)  
15:00 EL HERTZ  
17:30 AKERBELTZ

Talerrak eta jolasak:  
11:00 - 14:00 HAUHURI BASOA  
14:00 - 16:00 ABESTU, DANITZATU  
ETA SORTU KAIKUREKIN

**Vital**  
**KAIKU**  
**Luna Gora**

**3**  
**arabako**  
**gaitza**

11:00 HARRIA ARANDIA  
"Muga eta mugarrik lanetan"  
(Berriaren eskuak)  
12:30 IBI BEDI  
14:00 JAIURU LESTER  
14:00 BURUTIK  
17:30 DJ MALANDRO

Talerrak eta jolasak:  
11:00 - 14:00 HAZTEI ETA JOLASTEI  
Araba Euskaraz murgia eta jolasak  
Eguz orain zehar:  
EUSKALTEI KUKA ABUZKILETZ  
PUZGARRIAK

**EROSKI**  
**ELKADUNA**  
**HAKUSI GUTIA**



de Golazen. Los alumnos de las ikastolas alavesas ofrecerán 'Mugaezin Txoua!', y en este espacio también contarán con bailes de plaza y zumba. En cuanto a los talleres y juegos, en este espacio se ubicarán varios txokos y talleres.

En este espacio se celebrará el encuentro de danzas vascas, Dantza mugaezin. De la mano de la Asociación de Bertsolaris de Araba, contarán con la sesión Bertsotan. También estarán presentes en este espacio los conciertos de Mirotz, Akerbeltz y Eh, Mertxel. Recordemos que estos últimos han sido los encargados de componer la canción para el Araba Euskaraz de esta edición. También contarán con rincones para talleres y juegos.

En este área se ofrecerá el espectáculo 'Magia eta mirariak familiarian', de Maria Arandia. No podían faltar los conciertos de Ibil Bedi, Janus Lester, Burutik y DJ Malandro. Asimismo, en esta zona disfrutaremos con la cucaña ciclista y los hinchables de Euskaltel.

A lo largo del día, área por área, actuarán gaiteros, Gasteiz Kantuz, la comparsa de gigantes Arai y los Castellars de Alt Maresm. Además, los alumnos de las ikastolas de Araba se retarán en las pruebas de Erroka: los de Primaria tendrán sus retos en la zona de Mendía y los de la ESO en todas las áreas. Fuera de Olarizu, en el frontón de Adurtza, se celebrarán las finales del Campeonato de Interpueblos de Pelota de Araba.

Eh, Mertxel! rock taldeak jarri dio doinua abestiari. Aurtengo leloaren izen bera dauka: 'Mugaezin' eta Ibai Landa da abestiari hitzak jarri dizkiona. Ikastolako ikasle ohia, eta Oiongo San Bizente ikastolako irakaslea dugu Landa. Taldeko kideetako bat da Adrian Cabañas, Iosu Martínez eta Ivan Aranbarriekin batera. Guztiak ikasletako kide ohiak dira. Talde kementsua, gitarra zorrotzekin eta doinu melodiko eta infeksiosoekin, bulkada basatien erritmora dantza eta oiuhu egitera bultzatzen duena. Agertoki gainean indarra eta sinpatia transmititzen dituen taldea da, eta 2015etik dabil ohol-tza gainean. Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula, beraz.

Abestiarekin, eta abestia oinarri hartuta osatu duten dantzarekin, euskaraz ez duela mugarik adierazi nahi izan dute. «Harresiak hautsi genizkiola, hemen euskararen periferian; eta periferiatik erdigunera ere eramaten dugula euskara. Letrek azaltzen dute ekitaldi honetarako Araba Euskarazek hedatu nahi duen mezua. Batetik aniztasuna islatzen du, horrelakoa baita Oiongo San Bizente Ikastola: jatorri ezberdineko kidez osaturiko komunitate bat, herri eta herrialde ezberdinetik iritsi eta guztiak ikastolan elkartzen diren kidez osaturiko komunitatea. Bestetik, Arabako ikastolok bat egin dugula ere esaten du abestiak. Guztiok elkarrekin hirugarren urtez jarraian antolatzen dugun Araba Euskaraz baitugu aurtengo», aipatu zuten. Bihar erruz entzuteko aukera izango dugu!

**Arnasgunea Arabako Errioxan**  
Gure hizkuntzaren hesiak bota zituen  
Ebro ibaiaren ertzetan bere atea  
45 urtez irekia


Zortzien lankidetzaren beharrezko energia ikastolen magia gure mingainak dantzan jartzea

**MUGAEZIN ARABAN EUSKARA MUGIMENDU ETENGABEAN MAHASTI ARTEAN JAIOTAKO EKILOREAK OIONEN DU BERE ETXEA**

Mugagabea herriko ikastola  
Izaeraz hautsitailea izan dena  
Bere ikasleak izandako ume bezala  
Euskaraz abestearen motiboa

Eskualdeko birika bizia  
Nortasunean harrotasunez jantzia

**MUGAEZIN ARABAN EUSKARA MUGIMENDU ETENGABEAN MAHASTI ARTEAN JAIOTAKO EKILOREAK OIONEN DU BERE ETXEA**



## Egibide

### Formación Profesional con valores y futuro

#### » Redacción SRB

En Egibide, no solo formamos buenos profesionales; formamos buenas personas. Esa es nuestra esencia y lo que nos distingue. Para nosotros, la Formación Profesional (FP) es mucho más: es una formación integral, práctica y personalizada.

Cultivamos valores como la integridad, la responsabilidad, la justicia, la sostenibilidad, la diversidad y la iniciativa. Utilizamos metodologías activas y colaborativas basadas en retos, permitiendo a nuestros estudiantes desarrollarse en un entorno dinámico y real. Contamos con un equipo docente estable y experimentado, siempre enfocado en ofrecer una orientación personalizada.

La FP en Egibide se caracteriza por su estrecha conexión con el mundo laboral. Colaboramos con más de 1.300 empresas, de las cuales unas 550 acogen a nuestros estudiantes en prácticas y formación dual, y unas 1.200 forman parte de nuestra bolsa de trabajo. Este vínculo nos permite desarrollar programas de especialización, proyectos de innovación y formación a medida.

Según Lanbide, nuestra tasa de empleo es del 87,5% a los seis meses de finalizar un ciclo, superando la media de Euskadi del 84,68%. En sectores como Hostelería y Fabricación Mecánica, la tasa de inserción es cercana al 100%.

Siempre atentos a las necesidades del mercado laboral y de la sociedad, hemos lanzado ciclos como el Superior en Promoción de Igualdad de Género, y especializaciones en Desarrollo de Videojuegos y Realidad Virtual, y en Ciberseguridad.

Araba Euskaraz 2024ren espirituaren eta 'Mugaezin, mugagabea' leloaren ildotik, Egibide mugarik gabeko gunea da, eta bertan trebatu eta hazi zaitezke, bai euskaraz, bai gaztelaniaz. 44 titulazio eskaintzen ditugu 13 lanbide-arlotan, espezializazio-ikastaroetan eta unitbertsitatearekin lotuta ikasten jarraitzeko aukerarekin. Gainera, ordutegi malgua eskaintzen diegu (egunko, arratsaldekoa eta gauekoa) lanean ari direnei eta prestatzen jarraitu nahi dutenei.

- Erizaintza **Zainketa**  
Laguntzaileak (B ereduak).  
Molinuevo

- Administrazio Kudeaketa (D ereduak). Jesús Obrero

- Mantentze-Lan Elektromekanikoa (B ereduak).  
Arriaga

- Mikroinformatika Sistemak eta Sareak (B ereduak). Arriaga

- Mekanizazioa (B ereduak).  
Jesús Obrero

- Automatizazio eta Robotika Industrialak (D ereduak). Arriaga

- Genero Berdintasuna Sustatzeko (D ereduak).  
Molinuevo

- Administrazio eta Finantzak (D ereduak). Jesús Obrero

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua (B ereduak).  
Jesús Obrero

- Fabrikazio Mekanikoko Produktzio Programazioa (B ereduak). Jesús Obrero

- Mekanizazio Industrialak (B ereduak). Jesús Obrero.

Oraindik garaiz zaude ziklo berri eta eskaera handiko hauetan eta beste batzuetan izena emateko, besteak beste Fabrikazio Mekanikoa.


Sartu gure webgunean eta bete formulariora! (egide.org)

izaten jakitea  
ondo dago

izaten jakitea  
ere bai

araba euskaraz

araba euskaraz!



**Egibide**

IKASTETIK HARAGO

Balioetan oinarritutako hezkuntza ere irakasten da / La enseñanza en valores es algo que también se enseña

San Bizente Ikastolako zuzendaria

# «Familia osoarentzat egitarau erakargarria eta dibertigarria prestatu dugu»

Araba Euskaraz «giro euskalduna eta euskal kultura bazter guztietatik» gailenduko dela aurreratu du López de la Calle

» L. Larrazabal

San Bizente Ikastolak ia mende erdi darama Oionen errota lanean. 0-16 urte bitarteko ikasleak hartzen ditu, eta uneotan 201 familiak, 288 ikasleak, 34 irakasleak eta langilek osatutako komunitatea da ikastolarena. Funtsezko bi oinarri ematen diote berezko nor-tasuna. Alde batetik, kooperatiba da, gurasoek antolatuta, euren seme-alabei hezkuntza euskaldun eta kalitatekoa eskaintzeko, kudeaketa demokratiko eta garden baten bitartez. Bestetik, ikastetxe euskalduna da, integraziailea, akonfesionala, hezkidetzagilea eta metodologia parte-hartzailea eta kudeaketa irekia eskaintzen dituen Oiongo eta inguruko familia guztientzat.

Izan ere, inguruko herrietatik ere jasotzen ditu ikasleak, bai eta Errioxara bizitzera joandako zenbait familiaren seme-alabak eta zenbait ikasle nafar ere. Azken finean, Arabako Errioxako haurrak euskalduntzen dituzte, eta eginkizun hori betetzen dute nafarrekin, errioxarrekin eta urrunagoetik etorri berrieekin ere...


Bada, San Bizente Ikastolak Araba Euskaraz 2024 antolatzeko ohorea du. López de la Calle bederatzi urte daramatza zuzendari lanetan. Jairako azerako kontaketa hasi da.

**Araba Euskaraz ate-joka dugu. Prest zaudete festari aurre egiteko?**

Noski baietz! Urte osoa daramagu ilusioz prestatzen eta ia dena prest dago. Eguna iristeko irrikitan gaude.

**Festa potoloa antolatu duzue euskaltzaleontzat?**

Bai, egun garrantzitsua da eta familia osoarentzat egitarau erakargarria eta dibertigarria prestatu dugu. Hiru gune egongo dira: lautada, mendia eta erreka.



Araba Euskaraz ospatzeko irrikitan dago San Bizente Ikastolako zuzendaria.

**Zer nabarmenduko zenuke?**

Ekitaldi eta ikuskizun ugari, publiko eta adin guztientzat. Giro euskalduna eta euskal kultura bazter guztietatik. Gainera, dastaketa ezberdinak izango ditugu egun osoan zehar.

**Aurten ere Olarizun.**

Bai, oso leku egokia da. Jendearentzat hurbiltzeko errazagoa, eta tokia, eszenatokiak, garbiketa eta abarren antolaketa ere bai.

**Araba Euskaraz...**

**San Bizente Ikastolak ia mende erdi darama Oionen lanean. Ibilbide luze eta emankorra?**

«Gure eskualdean ez da erraza, baina euskara entzuten da kaleetatik, inoiz baino gehiago»

«Urteotan guztian lortu dugu eskualde honetan euskaldun eta ia euskaldunak ia %4 izatetik %40tik gora izatea»

Ongi diozu, mende erdi euskararen alde, konfiantzaren pedagogia eta ikasleen ongizate emozionalen oinarritutako ikasketa eredu propioa sustatuz, eta batez ere Arabako Errioxako eta inguruko herrietako familia guztiei proiektu euskaldun bat eskainiz, 0 eta 16 urte bitarteko euren seme-alabek euskaraz ikasteko aukera izaten. Denontzako eta denona. Gurea eta familiena.

**Zer nabarmenduko zenuke San Bizente Ikastolatik?** Mugan gaudela baina mugaezin (aurtengo leloak dioen moduan). Oiongo gazteak, Moretakoak, Ekorakoak, Bilarrekoak, Labrazakoak,

Barriobustakoak... eta Errioxa eta Nafarroatik jasotakoak euskalduntzen ibili gara azken 48 urteetan.

**'Mugaezin' aipatu duzu, aurtengo leloa hain zuzen ere.** Mugarik gabe eta mugaezin irudikatzen dugulako gure hizkuntza. Mugarik gabe, ez bada ortzi-muga, mugarriz mugarri, euskararentzako espazio zabalagoak irekiz. Mugarik gabe, euskaraz hezi eta hazi nahi duten guztientzat.

**Nola ikusten duzu euskara zure inguruan?**

Gure eskualdean ez da erraza, baina euskara entzuten da kaleetatik, inoiz baino gehiago. Duela 40 urte ume erdaldunak ginenak, gaur euskaldunak gara, euskaraz bizi eta euskaraz lan egiten dugun euskaldunak. Eta horrek elikatzen gaitu eta indarrak ematen dizkigu aurrera jarraitzeko.

Guraso, irakasle eta ikasle aitzindariek abiatutako ikastola mugimendua guztiz errota dago Arabar Errioxan. Urteotan guztian lortu dugu eskualde honetan euskaldun eta ia euskaldunak ia %4 izatetik, %40tik gora izatea. Eta gure gogo, borondate eta grina mugaezinarrekin lortuko dugu Arabar Errioxa euskalduna, Euskal Herri euskaldunean.

**Eta Araban?**


Araban ezagutza maila altua da, batez ere gazteen artean baina gure eskualdean bezala, erabilpen maila oraindik ez da orokorra. Indarra egin behar da zentzu horretan eta horregatik aldarrikatzen dugu ikastolok egiten dugun lana.

**Araba Euskaraz beste gauza garrantzitsu bat da jai antolatzen zortzi ikastola aritzen zaretela. Eskuz esku, buruz buru. Koordinazio maila altua da eta guztientzat helburua berdina da. Zortzi ikastolatan sortu ditugu batzordeak eta lanak banatu ditugu: material salmenta, Tanta txartelen salmenta, babesle-laguntzaileen eta publizitatearen bilaketa, segurtasun aurreikuspen lanak, urte osoko ekimenen antolaketa, eguneko egitarauaren taxuketak, muntaketa lanen aurreikuspena... Lan asko dira elkarlanean kudeatu beharrekoak. Lan horiek guztiak, bistan da, samurrago egiten dira ikastola guztiok batuta, eta denon artean koordinatuta.**

**Zer egingo duzue bildutako diruarekin?**

Ikastolako jantokia 2017an eraiki genuen, eta oraindik ordaintzeko falta zaigu; hori da helburuetako bat. Gainera, ikastolako komunak oso zaharrak dira eta berri nahi ditugu, hori ere beste helburu bat da.

**Deno, bada, Olarizura jende andana hurbiltzeko, eguraldiak laguntzea hesterik ez da falta!** Bai, mesedez! Hori ezinbestekoa da egunaz behar den moduan gozatzeko.



## Calentando motores para la gran fiesta

A lo largo del año se han celebrado diferentes actos para abrir boca de cara a la cita de mañana

» LL

El eco del Araba Euskaraz no es sólo cosa de un día. Nada más lejos. Durante todo el año ha ido calentando motores. Además, al igual que en ediciones anteriores, hemos tenido la oportunidad de disfrutar con diferentes iniciativas en todo el territorio alavés, porque un año más han querido extender Araba Euskaraz a todos los rincones, y se pondrá el broche de oro a la fiesta este domingo.

Como decíamos, hemos tenido muchas cosas con las que disfrutar y pasarlo en grande. Así, para abrir boca, en diciembre se celebró la final del concurso Gazte Talent. Seis grupos llegaron a la final, y presentaron sus trabajos al público en la sala Jimmy Jazz. Subieron al escenario Annekdota,

Mehatxu, Kitzika, Mirotz, Engandina y Scusi Boys. Los ganadores de la novena edición fueron Annekdotas y Mehatxu. Por su parte, los grupos Kitzika y Mirotz también fueron galardonados. Al mes siguiente, el 14 de enero, en el Palacio de Congresos Europa de Vitoria llegó el turno del concierto de Golazen 10. Hubo dos pases y los jóvenes disfrutaron de lo lindo.

En mayo y en junio...

Nos vamos adelante y en febrero Araba Euskaraz también presentó otra propuesta. El 25 de ese mes, en Oion, tuvo lugar el Encuentro de Pelota Vasca. Y salimos a marzo. En esta ocasión, tuvimos una doble propuesta. Así, el 6, en Oion, recibimos la visita de Porrotx y Marimotots. Los pequeños de la casa pudieron seguir de primera mano las aventuras de los dos payasos. Las risas y carcajadas de los más pequeños no cesaron durante todo el espectáculo. Y al mes de marzo tenemos que añadir otra propuesta. Y es que en Beskoitz, el 10 de marzo, se celebró 'Ikastolak herriari, non eta mugan'. En Euskal Herria

hay numerosos agentes que trabajan el euskera desde la periferia, uno de ellos es el movimiento de las ikastolas. A lo largo de la historia las ikastolas han tenido la misma misión en todos los lugares, las ikastolas de la periferia también tienen la misión de euskaldunizar a la gente y fortalecer la cultura vasca. Así, entre los homenajeados se encontraba la Ikastola San Bizente. Junto a ellos, la Ikastola de Sangüesa, la Ikastola Ibaialde de Lodosa, la Ikastola Erentzun de Viana, la Ikastola Argia de Tudela, la Ikastola Zubi Zaharra de Balmaseda, la Ikastola Eperra de Sohüta y la Ikastola de Beskoitz que ejerció de anfitrión.

Y vamos avanzando. En abril, además de presentar la canción del Araba Euskaraz, también destacó la edición del campeonato de cesta punta Jai Alai Master Series. Así, por segundo año consecutivo, el frontón Olabe de Vitoria acogió a las actuales estrellas de la cesta punta tanto femenina como masculina en el festival a favor de las ikastolas alavesas. De esta manera, Araba Euskaraz mantiene su intención de impulsar, fomentar y difundir el euskera, la cultura y los deportes vascos.

El 10 de mayo llegó otra cita importante a Amurrio. De hecho, el concierto de la gira de Golazen 10 puso punto y final allí. Araba Euskaraz ha impregnado todo el territorio con distintas y variadas propuestas para recordar que Araba Euskaraz se acerca.

» EUNEIZ »

## Prestakuntza espezializatua kirol-sektorean, bermedun apustua

» Redacción SRB

EUNEIZ Unibertsitateak irailtik aurrera Euskadiko Kirol Kudeaketako lehen-dabiziko gradua eskainiko du. Titulazio horrek profesional kualifikatuak sortzea izango du xedetzat, gizarreak gaur egun eskatzen dituen lan-esparru eta rol-aniztasunerako.

Kirol-sektorea hazkunde ekonomiko eta enplegarritasun handiena duen lan-eremuetako bat da. Izan ere, azken urteotan kirol-jarduerak egiteko, kontsumitzeko eta kudeatzeko modua zeharo aldatu da. Hala, egun aldaketa horiek esparru teknologikotik hasi eta esparru kultural edo sozialeraino iristen dira.

Errealitate hau aintzat hartuta, EUNEIZ Unibertsitateak aurrerago irailtik aurrera Euskadiko Kirol Kudeaketako lehen gradua eskainiko du. Titulazio honek profesionalen prestakuntza du helbururutzat, testuinguru profesional, sozial eta ekonomiko desberdinetan kirol eta jolas jardueren programak antolatzeke, planifikatzeko eta ebaluatzeko gaitasunak bereganatuko dituztelarik. Profil kualifikatuak, kirol-jardueraren gorkadagatik, kirol-produktu berrien agerpenagatik edo e-sport-en hedapenagatik espezializazioa eskatzen duen sektore baten aukera berriei erantzuteko.

'Kiroleko enplegarritasuna' (2021) izeneko txostenaren arabera, ingurune teknologikoetan garatutako profesionalak eskatuko

dira, ekonomian, finantzetan, enpresen administrazioan eta marketinean prestakuntza sendoa dutenak, hain zuzen ere. Guzti hauxe urtero hasten ari den industria batean. 2022. urtean,

235.400 pertsona enplegatu zituen, aurreko urtean baino %6,2 gehiago, hain zuzen ere.

Gero eta dibertsifikatuagoak eta espezializatuagoak diren rol horiek kontuan hartuta, Gasteizko Unibertsitateak teknologia berriekin lotutako ezagutzak bereganatzea azpimarratzen duen plan akademikoa diseinatu du -EUNEIZ-en nortasun ikurra dena- baita enpresen administrazio eta kudeaketa. 'Kirol Kudeaketako Programa berriak erabiltzea, Aginte Taula Integralak egitea, IA aplikatzea, Kirol Big Data edota diseinu eta material berrien ingeniaritza sektore hau dagoeneko irauli duten tresnak dira, nabarmendu du Ricardo Ariño EUNEIZeko irakasle eta Kirol Kudeaketan aditua.

Unibertsitateko 'partner' gisa Baskonia Alavés taldearen bermea duen titulazio honetako graduatuek edozein espezializaziotan jardun ahal izango dute profesional gisa, hala nola, kirol profesionalaren kudeaketan, kirol-instalazioen, espazioen, erakundeen eta jardueren aholkularitzan, turismoan edota kirol-marketinean.

Informazio gehiago: [www.euneiz.com-en](http://www.euneiz.com-en)

## Aukera ugariko etorkizun batengatik apustu egin!

Zibersegurtasuneko Gradua

Biodeojokoetako Arteko Gradua

Bideojokoaren Diseinu eta Garapeneko Gradua

Entretanimenduarien Industriadako Musika eta Soinu Ekoizpen Gradua

Kirol Kudeaketako Gradua

Podologiako Gradua

Universidad de Vitoria-Gasteiz

EUNEIZ

Ezagutu hemen graduak:

[www.euneiz.com](http://www.euneiz.com)

# Para lucir, de arriba abajo

El catálogo del Araba Euskaraz se completa con sudaderas, camisetas y complementos

» L. Larrazabal

El merchandising se ha convertido en el aliado perfecto para las fiestas de las ikastolas vascas: Ibi-laldia, Korrika, Herri Urrats, Nafarroa Oinez y, cómo no, Araba Euskaraz. «Sudaderas, camisetas de manga corta y larga, buffs, chandals y mallas han sido los productos que hemos tenido en la temporada de invierno, a la que hay que añadirle productos veraniegos como vestidos, tops... y complementos como mochilas, gorras o totebags», enumera Uxue Fernandez, profesora de la Ikastola San Bizente de Oion, y este año, una de las coordinadoras de la comisión de venta de ropa de Araba Euskaraz 2024.

La venta de ropa arrancó con el curso escolar. Un largo trayecto con la venta, por un lado, en la tienda física, que abrió sus puertas en la calle Animas, 19. Así, tanto los martes como los sábados despachaban prendas 'in situ', de 17.00 a 19.30 y de 11.00 a 13.30 horas, respectivamente. La segunda vía era online, en la web del Araba Euskaraz. Y la tercera opción será el stand que se pondrá mañana mismo en Olarizu. Pero ahí no queda la cosa, ya que también han contado con puesto de puntos de ropa hasta en dos ocasiones en cada una de las otras siete ikastolas que se sitúan en Álava. Y no solo eso. «A todo ello hay que sumarle la iniciativa que se ha llevado a cabo desde el comienzo de curso a la que se han sumado familias, profesorado y parte de esta comunidad para poder llevarlo a cabo, hablamos de la venta ambulante de ropa en diferentes puntos del territorio alavés, a la que hemos acudido a ferias, festividades de pueblos...», se alegra Fernandez.

El punto fuerte de esta venta de ropa ha sido el catálogo de verano.

«Creo que hemos hecho una gran elección con la ropa que hemos traído. Podemos decir que durante este año se verá mucha ropa del Araba Euskaraz 2024 por todo Euskal Herria y alrededores», comenta la profesora.

Como decíamos, la venta de ropa dio el pistoletazo de salida con el inicio del curso escolar. «Arrancamos con la temporada de invierno, haciendo hincapié en sudaderas y jerseys que fueron todo un éxito. A mediados de febrero empezó a llegar ropa nueva más veraniega, colores más llamativos y texturas más apropiadas para el calor. Sin duda, un catálogo al que le hemos tenido que seguir añadiendo más pedidos por la gran demanda que estábamos teniendo». En definitiva, oferta amplia y variada.

«¿Cómo? ¡Aún no te has comprado nada del Araba Euskaraz 2024? ¡No te preocupes, todavía estás a tiempo para adquirir prendas del Araba Euskaraz y lucir durante el verano! Y es que para los rezagados, el mismo día del Araba Euskaraz, este mismo domingo, podrán adquirir en Olarizu. Una vez pasado el gran día, valorarán qué hacer en caso de que sobren prendas.

El merchandising del Araba Euskaraz tiene una doble finalidad. Así, por un lado, tiene su función económica, es decir, es otra fuente de ingresos para la fiesta a favor de las ikastolas alavesas y, por otro, moviliza y da a conocer el Araba Euskaraz, vistiendo tanto a gente del pueblo como de toda Euskal Herria.



**Benetako patata berria eta bestelako garaiko produktuak baratzetik etxera**

**AMUTIO**  
zure etxean



BIDAKI  
GASTU  
JOHANTZ

█ Gasteizko Udala █

## Gazte Sortzaileak beka eskatzeko epea ireki da, 4.000 euro arteko dirulaguntza eta aholkularitza eskaintzen ditu

Uztailaren 15era arte eman ahal izango dute izena 16 eta 35 urte bitarteko gazteek

euskararen erabilera sustatzeko duen konpromisoa erakutsi nahi dugu. Izan ere, azken hamar urteotan, 30 gazte baino gehiago baitira beren kultur proiektuak garatzeko eta prozesu horretan ikasteko aukera izan dutenak, Udaleko Euskara eta Gazteria zerbitzuen laguntzarekin, adierazi du Maria Nanclores Euskara zinegotziak.

Hautatutako pertsonak 4.000 euro arteko dirulaguntza izango dute eta sorkuntza-prozesu osoan alboan izango dituzten profesionalen aholkularitza izango dute. Beka onartzen dutenetik 6 hilabeteko epea izango dute proiektua gauzatzeko. Tarte horretan, Udaleko Euskara eta Gazteria zerbitzuek egingo dute proiektuen jarraipena.

Bi kategoria daude, eskatzaileen adinaren arabera. Bata 16 eta 24 urte bitartekoentzat eta bestea

25 eta 35 urte bitartekoentzat. Gazteak banaka edo taldeka aurkez daitezke. Proiektuek lotura estua izango dute ahozko adierazpenarekin, eta euskarazko kulturari ekarpena egitea izan behar dute helburu. Hainbat modalitatetakoak izan daitezke, hala nola antzerkia, bakarrizketa, poesia errezi-taldia, musika, bertsolaritza, ikus-entzunezkoak, edo baita genero bat baino gehiago uzartu ere. Formatu txiki-jarduerari emango zaie lehentasuna.

Interesdunek uztailaren 15era arteko epea dute beren lanak aurkezteko. Horretarako, Gasteizen edo Arabako Lurralde Historikoan errolatuta egon behar dute. Lanak San Martineko bulego teknikoetan (erregistro orokorrean), gizarte-erretako herritarrei laguntzeko bulegoetan edo Udalaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu ahal dira.



'Eta kiTtorik ez' antzezlanaren antzezlanaren irudia.

18 urretik beherakoek beren aitaren, amaren edo legezko tutorearen baimena aurkeztu beharko dute.

2023ko edizioa: 2023ko Gazte Sortzaileak beka irabazi zutenek laster jendaurrean aurkeztuko dituzte beren proiektuak. Apirilean Aitziber Jiménez de Aberasturiren 'Ogi

belza' podkasta entzun ahal da. Mixel Elortzak maiatzaren 15etik aurrera argitaratu zuen 'Anera abenturak' mahai-jokoa. Marta Berganzok 'Gure Kutxa' antzezlanaren estreinatuko du ekainaren 29an Saiburua gizarte etxean eta Nefer Olaizolak, azkenik, bere performancea aurkeztuko du irailaren 15ean Labe Gazte Laborategian, San Bizente Paulekoaren kaleko 21. zenbakian.



# GAZTE SORTZAILEAK 2024

**SORTUTAKO EKIMENAK EUSKARAZ**

CREACIONES EN EUSKERA PARA JÓVENES

**EPEA**

**Uztailak 15**

**GAZTEOK GAZTEONTZAT NORENTZAT SARIA**

16-35 urte bitarteko arabarrak

4000€ra artekoa & aholkularitza profesionala



Ayuntamiento de Vitoria Gasteiz  
Vitoria Gasteizko Udala

Roberto Gonzalez » Araba Euskarazeko koordinatzailea

## «Auzolan erraldoiak dira gure jaiak, koordinaziorik gabe ezingo liriateke aurrera eraman»

«Talde ugari elkartzen dira Araba Euskaraz inguruan, asko dira bideratu beharreko lanak», aitortu du koordinatzaileak

» L. Larrazabal

Seikote bat arduratzen da ikastolek urtero antolatzen dituzten jai handien koordinazioaz. Horrela, jaien koordinatzaile nagusia Joseba Aginagalde da eta jai bakoitzaren koordinatzaile hauek ditugu: Marta Igoa (Nafarroa Oinez), Koldo Rodriguez (Herri Urrats), Gari-koitx Meabe (Ibilaldia), Mikel Egibar (Kilometroak) eta Roberto Gonzalez (Araba Euskaraz). Beraz,

Gonzalez buru-belarri aritu da biharkoa antolatzen. Lapuebla Labarkoa eskaltzalea da, Assa Ikastolako ikasle ohia eta bazkidea. «2022an Araba Euskarazeko edizioa antolatzen hasi nintzen koordinatzaile moduan», gogoratu du. Beraz, lau urte jo eta su.


**Zertan datza zure lana?**  
Araba Euskaraz egitasmoa Arabako zortzi ikastolen artean antolatzen dugu. Auzolanen oinarritutako proiektua da gurea, eta lan guztia bideratzeko ikastolatan lantaldeak sortzen dira. Nire lana lantalde horien koordinazioa egitea da. Araba Euskaraz ez da egun bakarreko jai, urte osoan zehar jarduerak antolatzen dira eta denon artean aurrera ateratzen ditugu.

**Zelako bilakaera izan du zure lanak?**  
Azkenengo hiru urteetan, Araba Euskarazeko edizioak zortzi

ikastolen artean, denak batera, antolatu ditugu, baina ordura arte ikastola bakar batek hartzen zuen antolatzaren ardura. Hor egon da bilakaera, ikastola bakar batek antolatzetik, zortzi ikastolek antolatzera pasa gara. Aurrerapauso garrantzitsua izan da.

**Lehenengo Araba Euskaraz 1981. urtean ospatu zen, duela 43 urte. Koordinatzailearen figura betidunik egon da?**  
- Betidanik ezagutu dugu koordinatzailearen lana, era batean edo bestean koordinazio lanak egin dira. Auzolan erraldoiak dira gure jaiak, koordinaziorik gabe ezingo liriateke aurrera eraman. Talde ugari elkartzen dira Araba Euskaraz inguruan, asko dira bideratu beharreko lanak.

**Harreman estua izango duzu Ibi-**



**hauetan guztietan Ikastolen jaiak antolatzeko orduan?**  
Herriari behar duena eskaini behar zaio, era batera edo bestera jaiak egokitu behar izan ditugu gizarteak momentuan behar duenera. Herriatik sortutako jaiak dira eta herriarentzat egin behar ditugu. Antolaketan aldaketak eman dira, garai berrietara egokitu behar izan dugu. Baina helburuak ez dira aldatu, ikastolei sostengua emateko eta euskara bultzatzeko sortu ziren jaiak eta gaur egun helburu horiek mantentzen dira.

**Euskal kulturaren agertoki**

**Beharrezkotzat jotzen duzu Araban ere ikastolen aldeko jaiak ospatzea?**

Bai, ikastolen proiektuak ezagutarazi eta bultzatu nahi ditugu Araba Euskaraz egitasmoarekin. Baina, era berean, euskarari eta euskal kulturari agertoki handi bat eskaini nahi diegu. Ikastolek bezalaxe, euskarak Araba Euskaraz bezalaxe, euskal kulturak Araba Euskaraz agertokia behar duelako; eta arabarrok ere Araba Euskaraz topagunea behar dugulako.

**Zein da Araba Euskarazko erro-  
nka nagusia etorkizunari begira?**  
Arabako euskalgintzako eragile guztien erroka gure lurraldean euskararen erabilera eragotzea izan beharko litzateke.

**Ialdia, Herri Urrats, Kilometroak eta Nafarroa Oinez jaietako koordinatzaileekin ere?**

Bai, noski. Euskal Herriko ikastolen jaien artean harreman estua dugu. Urtean zehar elkarrekin hainbat ekimen antolatzen ditugu Ikastolak Herriari egitasmoaren barruan; Horma Irudi Bateratua, Liburu Ibiltaria, Komiki Lehiaketa eta Non eta Mugan jarduerak esate baterako. Ikastolek jaietan elkarrekin ari gara lanean, hilero biltzen gara eta, gainera, koordinatzaile nagusi baten laguntza dugu.

**Sumatzen al da aldatetarik urte**

Vital Fundazioa

## 'Vital Araban zehar' ekimenak bere 20. edizioa beteko du eta 109 emanaldi eramango ditu Arabako herrietara

Arabako 50 udaletako eta Trebiñuko Konderriko 72 herri hartuko dute parte ekimenean

» Redacción SRB

Vital Fundazioaren 'Vital Araban zehar' programak bere 20. edizioa beteko du eta, zalanztarik gabe, Lurraldeko udalek udako hilabete hauetan ekimen kulturalak izateko aukerarik onena da. Sei kuartiletako 50 udalerrik (Gasteiz izan ezik) eta Trebiñuko Konderriko hiru herri musika emanaldiak, abesbatzen errezitaldiak, ballet erakustaldiak, dantzak eta antzerki emanaldiak izango dituzte. Guztira 109 ikuskizun izango dira, udalek erakutsitako askotariko lehenatasunei erantzuteko.

Vital Fundazioaren ekimena 72 herritarra iritsiko da (69 Araban eta hiru gehiago Trebiñuko Konderrian), eta hainbat diziplina izango ditu, hala nola balleta, dantzak, musika-emanaldiak, abesbatzak eta antzerkia. Larunbata den gauruk aurrera, eta irailera arte, 54 musika kontzertu, 44 antzerki emanaldi, 6 abesbatza errezitaldi, 4 dantza erakustaldi eta Jose Uruñuela Udai Dantza Kontserbatorioko ikasleek eskutik etorriko den ballet emanaldi bat izango dira.

54 musika kontzertu,  
44 antzerki emanaldi,  
6 abesbatza errezitaldi,  
4 dantza erakustaldi  
eta ballet emanaldi bat  
eskainiko ditu



DJ Kaktus.



The Sorry String Band.



Joyful.

# Euskararekin, sortu ginenetik

EROSI  
+ BAZKIDE  
TOKI  
-----  
EROSKI

Ekainak 16, denok Olarizura!



araba euskaraz



Hemengo  
izatea ona da

 **EROSKI**  
zurekin

# Auzolanaren emaitza

Ikastola guztiak batera, deniak batera. Arabako zortzi ikastolak elkarrekin aritu dira aurten ere Araba Euskaraz antolatzen. Bildutako dirua Oiongo San Bizente Ikastolarentzat izango da, baina beste zazpiak buru-belarri aritu dira antolakuntzan. Auzolana eta elkarlana ardatz hartuta, buruz buru, euren jakintza partekatuz, euren arteko harremana aberastuz. Emaitza, bihar bertan, Olarizun.

» L L

## 1. Zer suposatzen du Araba Euskarazek?

## 2. Ikasleek ikastolatik kanpo euskaraz egiteko jarduerarik antolatzen al duzue?

Elizabete Latorre

Bastida Ikastolako zuzendaria

«Egun horretan hainbeste euskaltzale elkarrekin batera jaia ospatzen ikusteak, harrotasuna sortzen digu»

1. Gurezat asko suposatzen du. Alde batetik, Arabako 8 ikastolok elkarlanean aritzea, denok bat eginda euskararen alde, eta beste batetik, egun horretan hainbeste euskaltzale elkarrekin batera jaia ospatzen ikusteak, harrotasuna sortzen digu eta ereindako haziak bere fruituak ematen dituela ziurtatzen digu. Urte askotan zehar egindako lanak, euskara bultzatzeak, bere emaitzak ematen dituela.

2. Aurreko urte batzuetan orduz kanpoko ekintzak antolatzen genituen eta bertan emaitza onak ikusten ziren. Gaur egun, beste ekintza mota batzuk antolatzen ditugu, baina lan handia egin behar dugu euskara ikastolatik kanpo ateratzeko. Beti zerbait gehiago egin behar dugula uste dut, ez dela nahikoa egiten duguna. Hori izan beharko litzateke erronka, euskararen erabilera ikastola esparrutik ateratzea eta areagotzea.



Elizabete Latorre

Lautada Ikastolako zuzendaria

«Araba Euskaraz topagunea da euskaraz bizitzeko eta euskal kulturaz gozatzeko»

1. Ikastolen jaiek ikastolek antolatzen dituzte eta lurralde bakoitzean urtero ospatzen dira. Jaiei artean, gurea, Araba Euskaraz jaia dago, eta beste ikastolen jaiek bezala funtzio konkretu bat dutela esango nuke, hau da, ikastoleatik herriak behar duena eskaini, euskara eta euskal kultura mantendu nahian.

Araba Euskaraz antolatzen dugu Arabako 8 ikastolen artean eta horrela lanak partekatzen ditugu, elkarrekin lan egiten dugu, aurrera ateratzen dugu. Auzolana ezaugarriarik nagusia da eta honek gure komunitatea ere indartzen du. Jaiek ikastolen eta ikastola bakoitzeko proiektuak zabaltzeko aukera ematen dute eta ekonomikoki ere lagungarria da ikastolek dituzten behar batzuei erantzuteko, diru hori instalazioetan, inbertsioetan, proiektuetan eta abarretan erabiltzen da.

Jaiak beharrezkoak dira, euskarak eta euskal kulturak bozgorailu bat behar dute ikusi eta entzuteko, beraz, Araba Euskaraz topagunea da euskaraz bizitzeko eta euskal kulturaz gozatzeko.

2. Ikastolan jarduera asko egiten ditugu euskara bultzatzeko, besteak beste, hedatze saioak, ondarrutar ikasleen eta DBHko 1. mailako ikasleen arteko topaketak etab. Bertso saioak ikastolako eskola orduetan egiten ditugu, baina esan dezaket zubi lana egiten dugula, izan ere Aguraingo bertso eskolara bideratzen ditugu. 'Oxigeno euskarari' ekintzetan parte hartzeko ere animatzen ditugu.

Euskara batzordeak oso jarduera polita zein garrantzitsua antolatzen du familiei eta beraien seme-alabei begira, hau da 'Familientzako tailerrak'. Hauek eskolaz kanpokoak dira, eta orain arte emaitza izugarria izan da. Ekainaren hasieran ere Euskal Jaia antolatu genuen ikastolan.




Elizabete Ojanz

Assa Ikastolako zuzendaria

«Jaia motibazioa eta akuilua da gure ikasleek euskaraz hitz egin dezaten»

1. Oso jai garrantzitsua da Arabako ikastolatan. Bi norabide ditu: lehena, euskararen aldeko jaia ospatzea eta euskararen aldeko lana eta borroka mapan jartzea. Jaia motibazioa eta akuilua da gure ikasleek euskaraz hitz egin dezaten. Araba Euskaraz euskaraz bizitzearen aldeko ekimena da. Bigarren norabidea ekonomikoa izaten da, eta ekitaldi bakoitzean dirua biltzen dugu premia ekonomikoa duen ikastola baten alde.

2. Ikastolak parte hartzen du euskara eskualdean normalizatzeke lanean dagoen Tiki-Ttaka elkartearekin eta eskualdean ekimenak antolatzen dira urtean zehar euskara normalizatzeke bidea eraikitzeke. Ekimen horietako batzuk helduei begira izaten dira, baina badaude ikasleei begira egiten ditugun ekimenak ere, hala nola, Euskal Kultur Asteburua, urtero antolatzen den Euskal begirale ikastaroa, 'Irakurri eta gozatu' irakurketa sustatzeko ekimena...



Aresketa Ikastolako zuzendaria

«Euskara normalizatua ez dagoen bitartean, Araba Euskaraz bezalako elkarguneak mantentzea oso garrantzitsua da»



1. Euskarari Araban eta Arabako zortzi ikastolen proiektuari sostengua ematen dion beharrezko tresna da. Tamalez, euskara normalizatua ez dagoen bitartean, honelako elkarguneak mantentzea oso garrantzitsua da euskarari eta euskal hiztunoi espazio eta denboran arnaguneak ematen dizkigulako gure hizkuntza eta kultura erdigunean jarriz.

2. Batez ere gizarte osoari dagokio euskararen normalizazioan aurrerapausoak burutzea, hezkuntza formalek haratago, gure herriak euskaraz bizi nahi badu. Eta ikastoloi gure

espa-  
rruan baita. Horregatik, modu kolektiboan bideratutako dinamikak behar dira. Aresketa Ikastolan, urte osoan zehar, euskarazko eskolaz kanpoko ekintzak, udako topalekuak edota herriko beste euskal eragileekin elkarlanean, eusLiderrak bezalako aisialdirako ekintzak eskaintzen ditugu gure ikasleek euskara ikasteaz gain, euskaraz bizi eta goza dezaten.

Iona Etxepare  
Laudio Ikastolako zuzendaria

«Araba euskalduna dela ozen aldarrikatzeko egun aproposa da»



1. Ikasturte oso baten lanaren amaiera dela deritzot. Arabako ikastolentzat euskara eta euskal kulturaren jai handia. Antolatzaile edo partaide izaterakoan era desberdinean bizi badugu ere, beti Arabako euskaldunak batzeko aukera paregabekoa izango da. Guretzat, Araba euskalduna dela ozen aldarrikatzeko egun aproposa da. Era berean, lan izugarriaren azken emaitza da, izan ere, Ikastolako familiak hainbat ekintzen antolatzaile eta partaide direla ez baitugu ahaztu behar.

2. Hainbat jarduerak egiten ditugu bai ikasle zein familiekin. Ez ahaztu ikastolen helburu nagusienetarikoa bat euskal hiztun osoak garatzea dela. Adibide pila jarri ditzakegu, ba-

tzuk urtero egiten ditugun horiek izan daitezke: eskola kanpoko ekintzak, oporraldietan egiten diren eskaintza euskaldunak edota herriko hainbat ekimenteran aktiboki parte hartzea. Ez ohikoak ere aipatu beharoko gertakariak, adibidez aurten ikasle talde batekin Durangoko Azokara jai egun batean joatea edota Korrikako hasiera ekitaldira ikasleekin joateko autobusa antolatzeko.

Paul Bilbao  
Armentia Ikastolako zuzendaria

«Euskaraz bizitzea ahalbidetzen duen eguna ere bada Araba Euskaraz»



1. Pare bat funtzio aipatzearen; lehenik, Arabako lurralde zabalean hedatuta dauden ikastolen eredia ikusarazteko balio du, bai eta komunitatearen sendotasuna agertzeko ere. Hori da Euskal Herriko Ikastolako kide garenon balio erantsia: Arabako eta gainerako lurraldeetako hamarnaka ikastolarekin komunitate bat osatzen dugu. Bigarrenik, Araba Euskarazek balio du ikastolek dituzten gabezia ekonomikoek modu kolektiboan crantzuteko. Esan egiten da herriak sortuak garela, eta horrelakoetan herriak berak aurrera egiten laguntzen digula egiaztatzen dugu. Eta, nola ez, hirugarren bat erantsearen, euskaraz bizitzea ahalbidetzen duen eguna ere bada Araba Euskaraz.

2. Gasteizek duen egoera kontuan hartuta, ikastolak ikasle euskaldun aktiboak sortzeaz gain, euskararen erabilera erorako espazioak ere sortu behar ditu. Askotan, gure ikasleek duten euskarazko arnagune bakarra ikastola da, eta eremu formalari lotzen ditote. Alde horretatik, oso garrantzitsua da eremu ez-formalean eragitea, eta horretarako beharrezkoa dugu eremu horretako jarduerak eskaintzea. Guk horren aldeko apustua egiten dugu eta horrexegatik, hain zuzen, eskolaz kanpoko hainbat ekintza antolatzen dugu, direla kirolaren lotutakoak, euskal kulturari lotutakoak eta abar. Euskaraz matematikak edo zientziak ikasteko ez ezik, gozatzeko ere balio duela ikus dezaten.

Irene Zubizarreta  
Argantzón Ikastolako zuzendaria

«Egun hau antolatzeko gehien baloratzen dena lankidetzak, komunitatea, ilusioa eta elkartasuna dira»




1. Araba Euskaraz eguna eta urtean zehar egiten diren ekintzak euskal kultura eta euskararen erabilpena eta konpromisoa zabaltzeko balio du. Modu horretan, euskaraz hitz egiteko, entzuteko, gozatzeko, bizitzeko, jolasteko, maitatzeko... topagunea sortzen da eta gure hizkuntzari bultzada bat ematen diogu. Egun hau antolatzeko gehien baloratzen dena elkarlana, komunitatea, ilusioa eta elkartasuna dira. Jai honi esker, ikastolen arteko sarea egonkortzen dugu eta proiektu honi zabalikundea ematen zaio.

2. Bai. Alde batetik, ikastolaren helburu nagusietako bat Trebiñu eta

inguru euskalduntzea da, eta horretarako hainbat ekintza antolatzen ditugu euskaraz ikastolan. Esate baterako, urte eta familientzat tailerrak, hitzaldiak, festa eta ospakizun ezberdinak etab. Ekintza guzti hauek herriko komunitateari zuzenduta ere badaude eta beti gonbidatzen dugu ikastolako sarea osatzen duten eragile guztiak (ikasle eta familia ohiak, herriko eragile eta elkarte desberdinak...). Betiere euskara izanik helburuetako bat. Bestetik, ikastola guraso elkar-teak ere eskolaz kanpoko ekintzak euskaraz antolatzen ditu eta udalerriko osoko haurrentzako eskaintza bat da.

Allianz

Unaiarena  
Aseguruak

www.unaiarena.com



Unaiarena Aseguruak

Seguimos cerca de ti.  
Zuregandik urbil jarraitzen dugu.

Aranzabal, 9 • 1º solairua • 1. bulegoa  
01008 Vitoria-Gasteiz

Tel. 945 23 31 38 • unaiarena@unaiarena.com

<https://www.facebook.com/allianz.seguros.unaiarena>

araba euskaraz

OlARIZU

ekainak 16

meGaeZin

*Vital*

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

Zurekin bat